

## Martin Ugalde: "Venezuelan ikasi nuen idazten askatasunean"

HABE, 102. zk., 1987-02-01: 38-40.

Ni Andoainen jaio nintzen 1921.go azaroak 11an, San Martin egunez, nire aita, berak egin zituen *zurezko gauzaki* batzu Nafarroako Irurzunen, ferian, saltzen zegoen bitartean.

Aita Pello Ugalde bera ere andoaindarra zen, oraindik ere Zumea kalean dagoen "Lastarregiberri" etxean jaioa; baina berritu aurretik, nonbait; 43 urte exilatua egon, eta, agindu bezala, ez zen Franco bizi zen bitartean itzuli, eta etorri eta berehala hil zen, agindua beteta gero, 85 urtez. Ama Anttoni Orradre hernaniarra da, 88 urte bete berriak ditu. Neuk bizpahiru urte nituela eta nire anaia gaztetxoagoa den Josebarekin, biok jaio ginen Bastero auzoko telefonikatik "Lastarregiberri"ra etxez aldatu ginen.

Aiton-amonak aspaldi hilak dira:

Aitaren aldetik, Gregorio Ugalde, aitona Zeraingo "Ansostegi" baserrian jaio eta ia berehala Ori ibaiaren beheko Ordizira jaitsi izan behar zuen gurasoekin; amona, Dolores Beloki, tolosarra, ez nuen ezagutu. Alderdi honetatik, beraz, goiherritarra dut *jatorria*. Amaren aldetik, berriz, Joxe Mari Orradre Egiluz aitona, Aioitz inguruko Gurpegi herrixkan jaio eta, bigarren karlistada liberalekin egin ondoren, Hernanin geratu eta hemen hernaniarra xen Bixenta Lujanbio, "Satse" baserrian "Txirrita"ren *babes* berean jaioa, lehengusu propioak baitziren, bi anaiaren seme-alabak. Alderdi honetatik nire jatorria nafarra eta nafar-mugako beheterritarra da.

Nik neuk pena bat dut: ez nuela amonik ezagutu, biak hilak bait ziren ni jaiotzerako, eta ez zait hauen erretraturik ere geratu. Aitonena: nafarrarenak baditut bi, baina zeraindarrarenik ez; nire aita zenak zioenez, kamara baten aurrean jarri nahi izan zuten bakoitzean, *izutu* egiten zen, makina hark anima kenduko zion beldurrez.

Zuzenki nire familian hau izan nuen bertsolari bakarra, *bertso-paper* batzu egin zituen, eta Antonio Zabalak jaso du bat; bestea, "Txirrita"rena, *saihetsekoa* izan nuen.

Nire aurrekoen ofizioaz hitz bat: nire bi aitona, nire aita eta nire osaba guztiak *zurginak* izan dira. Lanbide ederra iruditu zait beti; hortik *datorkit* zurarenganako dudak barru-barruko lotura. Ni neu, zergatik ez naizen ofizioz gauza bera izan? Ba, gerra dela eta, seguraski.

### Gerraren inguruan

Gerra sortu aurretiko nere 9-14. Errepublika garaiko urteak oso mugituak izan nituen. Batzokiko dantzari-txiki saiotan, antzerki eta mitinak ukitu ninduten aldi hartan gehien. Gure dantzari-txiki taldea, nire aitak eta Nemexio Fernandez-ek *eratu* zuten, biak izan ziren gure maisuak. Bestalde, hamahiru urtez joaten nintzen Bilabonara nire aitarekin tranbiaz, hango taldea *gertatzera*, eta aita oso lanpetua ibiltzen zenez gero, bakarrik

egiten nuen ilunabarreko bidaia, eta 1934ko San Martin egunean Amasako festetan egin zuen talde honek lehen agerketa, eta estreinaldirako bereziki neuk egin nuen taldeko kapitan-dantza.

Bilabonako gure txistularia, Cardenal gaztea, eta danborreroa, biak, afusilatuak izan ziren, Franco-ren tropak sartu ziranean, eta Nemexio Fernandez andoaindarra ere bai.

Ikus dezakegunez, euskal dantzak bazituen bere arriskuak.

Mundu honek asko markatu ninduen: euskaraz idatzi nuen lehen ipuin-liburuak, Hiltzaileak, Nemexioren afusilamentua du gai.

Gerran bertan hor egin genituen Euskalerriko kalbarioaren geraldia: Hernani, Donostia, Zumaia, Mundaka eta gero Bilbo; hau galdu genuenean, Santander-era; aita galdua, anaia Errusira ebakuatua; hemen hartu ahal izan genuen bonbardeopean, Frantziara zijoan ontzi ingelesa, *jendez gainezka!* Hernaniko izeba eta lehengusuak, Durangoko bonbetatik milagroztan irten zirenak, denak ijituak bezala. Gero, Catalunyan agertu zitzaigun aita *noizpait*, eta ama harantz joan eta neu Jaurlaritzako Kolonia-eskoletan geratu nintzen: Donibane Garazin urtebete, gero Donibane Lohitzunen, mundu gerra hasi eta alemaniarrek Hendaiaraino heldu ziren arte.

Euskaldunok, brujula guztiak galduta gelditu ginen.

Kontzentrazio zelaietan egon ginen, aita alde batetik, neu bestetik, elkar ikusi gabe. Azkenean elkartu ginen; baina, kartaz Odessan aurkitu genuen anaia, urtetako galdu genuen berriz, mundu-gerra amaitu eta gero arte, eta ama, Catalunyan harrapatuta geratu zenez gero, Andoainera hurbildu zen: ez etxe, aitaren lantokia beste batek hartua, herrian bertan *arrotz!* Eskerrak aitak 1939go abuztuan, mundu gerra hasi baino egun batzu lehenago, Eusko Jaurlaritzak eraturako hiru ontzietako batean Venezuelarako bidea hartu zuela. Neu Francorenera bidalia izan nintzen (1940) eta laster hiru urtetarako Afrikarako bidea soldadu gisa (1942), goseak jota *eta zorritz josita*, "rojo-separatista" txartela erantsita batera eta bestera.

## Venezuelan

*Gero luze-luze baten ondoren*, Venezuela izan zen 1947an familiako laurok elkartzeko bizilekua.

Eta hemen ikasi nuen idazten askatasunean.

Hasiera zailak izan nituen, atzerrikoek gehienetan izan ohi dituzten bezala, baina bokazio bat, edozein, izateko zoria duenak askatasun giro bat nahikoa du etengabeko lanaren bitartez aurrera irteteko. Bitarte honetan ezkondu egin nintzen Caracaseko Eusko Etxean ezagutu nuen santurtzear batekin, Anamari Martinez Urreiztieta, eta hiru seme-alaba izan genituen: Unai Ona, Miren Itxaso eta Miren Ainara. Hauei irakurketa euskaraz eskaintzearren idatzi nuen "Umeentzako kontuak", "Ama gaxo dago" antzerkia ere bai; eta euskal liburuxka hauekin beste batzu idatzi nituen erdaraz, Venezuelari zor nizkionak, hain zuzen. Irabazi nituen sari batzu, eta bai Madrileko "Sésamo" saria ere.

Honeratu ahal izan nuenean (1969) EAJ/PNV neure alderdiko lan politiko batzutan sartu nintzen; *isilpean*, noski, eta 1973an poliziak Ifarraldera bota ninduen arte. Andoaindarra naizela esan dut hasieran; azken 19 urtez Hondarribian bizi gara gusto

ederrez, eta hemen *burutu* ditut euskaraz eta erdaraz hainbat artikulu eta liburu; beraz, hemen sortuak direnez gero, hondarribiarrak dira.